

Axular lizeoaren

2013

Hezkuntza Proiektua

AURKIBIDEA

- 0.- Sarrera. Aurkezpena.
- I.- Testuinguruaren azterketa.
- II.- Nortasun-ezaugarriak.
- III.- Zentroaren xede eta helburuak.
- IV.- Ikastolaren hezkuntza-eredua.
- V.- Antolamoldea.
- VI.- Azken oharrak.

0.- Sarrera. Aurkezpena

Orain eskuartean daukazu dokumentua Axular Lizeoaren Hezkuntza Proiektua da. Dokumentu honek baliabide bat izan nahi du gure hezkuntza-komunitatea osatzen duten alderdi guztiak biltzeko eta komunitate horri koherentzia handiagoa emateko.

Dokumentu honetan, oso ongi bereizitako lau atal aurkituko dituzu. Lehenengoan, zentroaren egoeraren berri ematen da. Ez du oso zehatza izan nahi, baina, Ikastola bere ingurunean kokatzeko baliagarria izateko asmoz egin dugu. Bigarrenean, nortasuna eta gure zentroaren funtsezko ezaugarriak ageri dira; bestela esanda, garen hori. Hirugarrenean, hezkuntza-ereduaz, helburuez eta gure zentroak hezkuntza-komunitate gisa lortu nahi duen joeraz hitz egiten da. Azkenik, laugarrenean, atalik luzeenean, Ikastolaren antolaketa eta kudeaketa ereduaren berri ematen da.

Txosten hau ez da asmatutako ezer, ez da berria. Ikastolak bere eguneroko lanean erabiltzen dituen beste txosten batzuetan dago oinarritua, hala nola zentroaren urteko egitasmoetan, Axular Lizeoa Kooperatibaren estatutuetan, Barne Erregimenerako Araudian eta hainbat erabakitan —besteak beste Kontseilu Erretoreak, biltzarrek, irakasleek eta zuzendaritzak hartutakoak—; eta “Hezkuntza Proiektua” izenburua daraman txosten honetan, egun garena, egiten ari garena eta egiteko asmoa duguna bildu eta egituratu dugu.

Orain zuk irakurtzea nahi dugu, horrela Axular Lizeoak osatzen duen hezkuntza-komunitatea hobeto ezagut dezazun; zuk, guraso, irakasle, langile eta zergatik ez, ikasle zaren horrek ere osatzen duzulako.

Besterik gabe, irakurketa interesgarria izango zaizulakoan agurtzen zaitugu.

Donostian, 2013ko otsailean

I.- Testuinguruaren azterketa

a) Indarrean diren legezko aginduak

- 1978ko Espainiako Konstituzioa
- 1979ko Autonomia Estatutua
- LOE
- Hezkuntza Itunen Legea
- EAEko Curriculum ofiziala
- Ikastolen Euskal Curriculum
- Ikastolen batzarrak

b) Zentroaren egoera sozioekonomiko eta kulturala

- Etxebizitzen kontzentrazio-maila.
- Hizkuntza- eta familia-jatorria.
- Lan- eta ekonomia-egoera.
- Etxebizitza motak.
- Kultura-zerbitzuak.
- Lantokiaren gertutasun/urruntasuna.
- Gurasoen ikasketa- eta kultura-maila.
- Sustriak eta ohiturak.
- Giza zerbitzu eta ekipamenduen azpiegitura.

c) Zentroaren tipologia

- 1- Titulartasuna.
- 2- Finantzaketa-modua.
- 3- Kokagune geografikoa.
- 4- Zentroaren ezaugarri eta datu fisikoak: orubearen m²-ak; eraikinaren m²-ak; instalazioak; ikasle-, guraso-, irakasle-, langile- ez-irakasle- eta laguntzaile-kopurua.

a) Indarrean dauden legezko aginduak

Jarraian, gure hezkuntza-proiektua baldintzatzen duten legezko aginduak azalduko ditugu, horietatik adieraziko baitigute zer askatasun-eremu daukagun gure jardura akademiko eta hezitzailean. Hona hemen:

- Espainiako Konstituzioa. 1978.
- EAeko Autonomia Estatutua. 1979.
- LOE (Hezkuntzaren Lege Organikoa).
- Euskal Curriculum.
- Zentroetako gobernu-organismoak arautzen dituzten autonomia-dekretuak.
- Orientabide eta programa akademikoak.
- Hezkuntza-administrazio-ko zirkularrak.
- Titulartasunerako arau propioak. Kooperatiben Araudi Orokorra
- Hezkuntza-itunak.
- Administrazio-hitzarmenak.
- Curriculum-diseinuak.
- ...

Arau horiek guztiek ondorengoei eragiten diete: irakasleriaren atxikipenari, aukera profesionalari, hezkuntzaren edo hezkuntzen erabilari, ordutegiari, lanegunari, aginte-organismoen kompetentziari, irakasle taldeari, ikasleen taldekatze eta promozioari, finantzaketa-mailari, egutegiari, administrazio-izapideari, etab.

b) Zentroaren egoera sozioekonomiko eta kulturala

Atal honetan, alderdi batzuk aipatzen dira zentroa zer egoera sozioekonomiko eta kulturaletan txertatuta dagoen ikusten ahalegintzeko. Ondorengoak dira:

- Ikasleen etxebizitzaren kontzentrazio- edo sakabanatze-maila.

Gure ikasleen ia %75 Aiete auzoan bizi da, beraz ikasleen hiru laurdenak ikastetxearen ingurukoak dira. %15en bat ez da Donostiatik etortzen, kanpotik baizik; gehienak Hernanitik. Gainontzekoak, ia %10, inguruetatik edo Donostiako beste auzo batzuetatik etortzen dira: Amara, Zentroa, Antigua, Gros, eta abarretik.

- Hizkuntza eta familia-jatorria.

Lizeoan bi familia mota daude: beti edo ia beti euskara erabiltzen dutenak eta euskara sekulari ere ez edo oso gutxitan erabiltzen dutenak. Jatorriari dagokionez, familia gehienak Gipuzkoan jaioak dira, Euskal Herriko beste leku batzuetan jaioak gutxiago dira, eta gutxienak Espainian jaioak dira.

- Lan- eta ekonomia-egoera.

Auzoa eta ikastola klase ertaineko langilez osatuta daude batez ere. Gehienak langile liberalak dira; edota kualifikazio profesional ertain edo goi-mailakoa duten enplegatuek, zerbitzuen arloan edo industrian dihardutenak: abokatuak, sendagileak, bankako enplegatuek, irakasleak, kudeatzaileak, merkatariek, aholkulariak, aparejadoreak, mekanikariak, erizainak,

informatikariak, administrariak, etab.

Langabeziak ez du ia eraginik. Familia dezentetan aitak eta amak egiten dute lan.

- Etxebizitza motak eta bizi-kalitatearen maila.

Etxebizitza gehienak duela gutxi eraikiak dira (duela 40 urte baino gutxiago), eta onargarritik hasi eta ezin hobereinoko bizi-kalitatea bermatzeko baldintza guztiak dituzte. Ez dago *erlauntza-etxebizitzarik*, eta eraikin motak ez dio auzoari pilaketa sentsaziorik ematen. Horien mantentze-lanen mailak ona dirudi. Etxebizitzen azalera 80 eta 100 m² artekoa da batez beste eta askok garajea daukate.

1995etik aurrera etxebizitza-kopuruak gora egin zuen eta une honetan auzoa zabalkunde betean dago.

- Kultura-zerbitzuak.

Auzoan ikastetxe ugari dago, eskola-zona gisa kalifikatuta baitago. Gainera, berriki, kultura-etxe bat ireki dute.

Hauexek gara auzoko ikastetxeak: San Alberto Magno Ikastetxe Alemana, San Patricio Ikastetxe Ingelesa, Jesusen Alabak Ikastetxea, Aieteko Eskola Publikoa, Gautena (autistak) eta gu geu, Axular Lizeoa. Haur Hezkuntzatik Batxilergora, hots 2 urtetik 18ra, ikasketa guztiak euskarazko D ereduan egiteko aukera geuk bakarrik eskaintzen dugula azpimarratu beharra dago. Auzoan ez dago Lanbide Hezkuntzarako zentrorik eta agian egunen batean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa eraikiko dute.

Kultura-zentroak, berriz ondorengoak dira: Aieteko Kultur Etxea, Kirol Elkarte Etxadin eta inoiz Aieteko parrokia, Katxola baserria eta Nagusien-etxea.

Gauza positiboen artean daukagun parkea aipatu behar da, ederra baita eta egokia batez ere haurrentzat. Gazteek (15-30 urte) auzotik irten behar dute ekipamendu sozio-kulturalak eta aisialdikoak aurkitzeko. Irteera horiek nagusiki garraio publikoa erabiliz egiten dira Amarara, Antiguara edo Erdigunera; edo, bestela, nork bere ibilgailua baliatuz.

- Lantokien gertutasun edo urruntasuna.

Auzoa bizitegi-auzotzat jo dezakegu, eta hein txikiago batean lo-auzotzat. Ondorioz, ez dago ez lantokirik ez eta lan-establezimendu askorik ere. Auzoko jendeak egunean behin edo gehiagotan mugitu behar du auzotik kanpora lantokietara joateko. Lekualdatze horiek aitak zein amak egin behar izaten ditu gainera, etxetik kanpora emakume askok egiten du eta lana.

- Gurasoen ikasketa eta kultura-maila

Gehienek ikasketa ertainak edo goi-mailakoak dituzte eta badute nolabaiteko kultura maila. Etxe gehienetan badago kulturako oinarrizko baliabiderik, hala nola liburuak, kontsulta-liburuak, hiztegiak, irratiak, telebistak, bideoak, ordenagailuak, musika-tresnak, etab. Hobetu daiteke gure historiaren, literaturaren, artearen, eta abarren ezagutza maila, eta gurasoek badute zer hobetu euskarazko astekari, prentsa etab. irakurtzeko orduan.

- Sustraiak eta ohiturak

Auzoko biztanleak oso txertatuta daude beren auzoan, bizi diren lekuan sustrai sendoak bota dituzte eta hiriko ekitaldi guztietan hartzen dute parte: danborradan, Olentzeroetan, Aste Nagusian, etab. Ohiturei, jaiei, sinboloei eustea gustatzen zaie.

Auzoan, ordea, askoz ere gutxiago daude sustraituta; eta ez da bertan kultur ekitaldirik

ia batere egiten. Ondorioz, ekitaldi horietako partaidetza halaber txikia izaten da.

- Giza zerbitzu eta ekipamenduen azpiegitura

Arestian aipatutako kultur azpiegituz gain, auzoan badira parkeak eta aisiarako inguruneak, erlijio-ekipamenduak, zahar-etxea, kirol-elkarteak, dendak eta taberna batzuk.

2010ean Udalak Kultur Etxea egin du Aieteko Parkean, lehen ez zegoen ekipamendua jarriaz.

c) Zentroaren tipologia

Atal honetan zentroa deskribatzen dugu eta horri buruzko datu kuantitatibo batzuk eskaintzen, horren tipologia ezagutzeko. Hortik ateratzen den lehen ondorioa honako hau da: gurea erdi mailako zentroa da, 850 ikasle ingurukoa eta bi linea dituen (bina gela mailako).

1. Titulartasuna

Zentroaren titularra **Axular Lizeoa Kooperatiba Elkartea** da, indarrean dagoen Kooperatiben Legearen, Elkarteko Kooperatiboaren Estatutuen eta eragin diezaioketen beste legezko aginduen arabera arautzen dena. Zentroaren izen ofiziala AXULAR LIZEOA-LICEO AXULAR da. 1978tik du bere esku titulartasun akademiko nahiz soziala. Nolanahi dela, 1978a baino lehen, 1969tik hain zuzen ere, ikastola bazegoen eta *Gurutziaga* zuen izena. Hortik sortu zen 1978an AROSTEGI S.A.-AXULAR LIZEOA eta azkenik, 2003an, AXULAR LIZEOA Kooperatiba Elkartea.

2. Finantzaketa-modua

Zentroaren finantzaketa-iturri nagusia, %80, Hezkuntza Sailaren diru-laguntza da. Gainerakoa, %20, gurasoek ordaintzen dituzten kuotak.

3. Kokapen geografikoa

Aiete auzoan dago, Donostiaren kanpoaldean, Etxadi deituriko inguruan.

Kokalekua espazio irekia da eta aireztatua, dentsitate txikiko etxebizitza berriz inguraturik dago. Bi orientazio nagusi ditu, iparra eta hegoa. Hegoaldetik eta beheko mailatik Donostiako saihebidetza igarotzen da. Iparraldean ikastolarako sarbidea dago eta bertan amaitzen denez gero, ez dago kanpoko trafikorik.

Azken urteotan hainbat poligono sortu dira, baita etxebizitza, enparantza, etab. berriak ere (Miramón, Pagola, Puyo-Lanberri).

4. Ikastetxearen ezaugarriak eta datu fisiko zein giza datuak

Zentroa eraiki zen urtea: 1978.

Azalera: 14.600 m², horietatik 1.568 m² ikastolaren eraikinak hartzen ditu eta, 13.032 m² libre dagoen orubea da. Eraikinak lau solairu ditu, eta 6.539 m²ko azalera eraikia.

·Sotoko solairua	1.164 m ²
	- Gimnasioa, 115 m ² .
	- Rokodromoa (eskalada-murrua), 50 m ² ko azalera
	- Jantokia. 140 pertsonak aldi berean jateko lekua.

	<ul style="list-style-type: none"> - Areto Nagusia. - Gimnasio txikia. - Atari estalia. - Galdara-gela eta ur-andela - Estali gabeko jolas-tokia, 4.000 m². - Bi komun eta aldagelak. - Biltegi bat.
·Beheko solairua	<p>1.323 m²</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zortzi gela (bakoitzak 56 m²) - Lau komun-modulu. - Bisitarien gela. - Zuzendaritza. - Idazkaritza. - Psikologoaren bulegoa. - Bi trasteleku. - Liburutegia. - Dutxa bat. - Makina-, artxibo-, biltegi-gela bat. - Lau komun. - Atari estalia.
·Lehen solairua	<p>2.068 m²</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lau komun. - Hamalau gela. - Tutoretza bat. - Liburutegi bat. - Bikoizketarako bi gela. - Orientabide-gela bat.
·Bigarren solairua	<p>1.948 m².</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hamar gela. - Informatika-gela. - Ikus-entzunezkoen gela (bideoa, musika) / Ingelesa - Hiru laborategi (natur zientziak, fisika, kimika) + teknologia. - Plastika-gela./ Ingelesa - Bi tutoretza - Hiru harrera-gela. - Ingeleserako gela.
Kanpoko kirol-eraikina	<p>1.960 m²</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lau aldagela. - Hiru biltegi. - Kirol-ekipamendurako gela.
·Ikasle-kopurua:	<p>800/850</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntza : 200 - Lehen Hezkuntza: 300

- Bigarren Hezkuntza: 300

· Gela-kopurua: 33

Haur Hezkuntza: 9

Lehen Hezkuntza: 12

Bigarren Hezkuntza: 12

- Hizkuntza-eredua: "D"

- Familia-kopurua: 550
- Seme-alaben batez bestekoa familiako: 1'56
- Autobus-zerbitzua darabilten ikasleak: %24
- Jantoki-zerbitzua darabilten ikasleak: %60
- Langileak (irakasle eta ez-irakasleak): 55 lagun
 - 50 irakasle
 - 5 ez-irakasle

II.- Nortasun-ezaugarriak

- 1.- Sorrera.
- 2.- Misioa.
- 3.- Ikaskuntza-hizkuntzak. Eleaniztasuna.
- 4.- Aniztasun ideologikoa.
- 5.- Aukera ez-konfesionala.
- 6.- Balio etikoak.
- 7.- Doakotasuna lortzeko lana.
- 8.- Integrazioa.
- 9.- Baterako hezkuntza (koedukazioa).
- 10.- Ildo metodologikoa. Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza.
- 11.- Kudeaketa-eredua- / Kalitatea.
- 12.- Proiektu global bateko partaidea. Ikastolak eta irakaskuntza-kooperatibak.

1.- Sorrera

Beste hainbat ikastolen antzera, Axular Lizeoa ordu artekoak ez bezalako hezkuntza eta eskolaren premiari erantzuteko sortu zen; alegia, euskalduna eta euskal nortasun zein kulturaren ezagutza eta garapen handiagoak sustatuko zituena.

2.- Misioa

Axular Lizeoaren helburua, haurren eta nerabearen giza garapena eta garapen integrala lortzea da, guraso eta irakasleekin lankidetzan estuan, eta Euskal kulturaren esparruan.

Gure ikasleen baitan **,osagai pertsonalak, sozialak eta naturalak batzen dira.**



3.- Ikaskuntza-hizkuntzak. Eleaniztasuna

Kontutan izanik herri baten kulturaren sustraia hizkuntza dela, Axular Lizeoak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek: ikasketak amaitzen dituztenean ikasle guztiak euskaraz jarraitzeko gai izango direla, eta euskararen erabilpena egunetik egunera indartzen ahaleginak egingo dituela.

Gainera, gazteleraren ezagutza eta erabilera egokia ere bermatzen du, Euskal Herriko gizarte-egoera elebidunaren faktore garrantzitsua baita.

Hirugarren hizkuntza baten irakaskuntza egokia bultzatzen du, ingelesa, beste herri batzuekin harremanak lortzeko tresna baita. Lau urterekin hasten dira ikasleak hizkuntza hori ikasten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar ikasle guztiak frantsesa ikasten dute.

Beraz, ikastolako ikasle guztiak lau hizkuntza ikasten dituzte. Ikasleak laueta konpetenteak izatea da helburua, bai komunikazioa arloan, bai arlo instrumentalean berariazko kontzeptu eta ezaguerak eta edukiak jasotzeko. Nolanahi ere, kontuan izan behar da beti dagoela hizkuntza nagusi bat eta besteak horren inguruan egituratzen eta eraikitzen joango direla. (Ikus Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua).

4.- Aniztasun ideologikoa

Ikastolak, Euskal Herriaren aniztasunaren adierazgarri, apolitikotzat jotzen du bere burua eta, ondorioz, talde edo alderdi politikoetatik independente. Hala eta guztiz ere, hezkuntza-esparrutik at ikastetxeko kideek gizabanako gisa eduki ditzaketen ideologiak errespetatzen ditu. Nolanahi ere, ikastetxean ezingo da izaera politikoa duen inolako ekintzarik ez propagandarik egin.

5.- Aukera ez-konfesionala

Era berean, erlijioari dagokionez Euskal Herritarron artean dagoen aniztasuna kontuan izanik, Axular Lizeoak akonfesionaltzat jotzen du bere burua. Halaber, ikuskera erlijiosoan balioa onartzen du eta kide guztien sinesmen eta uste sendo erlijiosoak errespetatzen ditu, horiek oinarrizko giza eskubideak urratzen ez dituzten heinean.

6.- Balio etikoak

Ikastetxeak ikasleengan hainbat balio etiko sustatzeko konpromisoa hartzen du; ondorengoak besteak beste: gizakiaren duintasuna, giza eskubideak, gizaki guztien berdintasuna, askatasuna, norbanakoaren eta taldearen justizia-zentzua, parte hartze eta ekinbide demokratikoa, arauen errespetua eta tolerantzia, giza generoaren batasuna, indarkeriaren gaitzespena eta bizi garen munduari begirunea, oro har, Giza Eskubide Unibertsalen Aldarrikapenean jasotzen denaren arabera.

7.- Doakotasuna lortzeko lana

Hezkuntza herri osoaren eskakizun eta ardura denez gero, eta gizarte zuzen batek denei aukera berberak eman behar dizkienez gero, Lizeoa ahaleginduko da zerbitzu hori arlo guztietan dohainekoa izan dadin eta gizarteko maila guztiak hori jasotzeko aukera izan dezaten.

8.- Integrazioa

Axular Lizeoak, hezkuntza aukeren artean edukiko du integrazio fisiko edo

psikologikorako ezintasunak dituzten haurrak hartzeko aukera, gizarte bereko pertsona gisa integratzeko asmoz, beti ere baldintza egokietan eta ikastetxearen ahalmenen barruan.

Aldi berean, beste ikasleek ezintasun horiek modu naturalean onartzea eta berezitasun gisa ulertzea bultzatuko du ikastetxeak.

9.- Baterako hezkuntza (koedukazioa)

Lizeoak bere egiten du baterako hezkuntza, komunitate bereko pertsonen arteko harremanetarako era naturala delako. Baterako hezkuntzaren oinarritzko helburua hezkuntza osoa da, aniztasunaren filosofian txertatzen dena eta hezkuntza-komunitateri zehazki eta gizarteari oro har desberdintasunak ematen duen aberastasunaz gozatzeko aukera eskaintzen diona. Askotariko egoeretan askotariko jokaerak edukitzea soilik izan daiteke justizia eta berdintasunaren bermea.

10.- Ildo metodologikoa. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza


Gure jarduera hezitzaileak ikasle bakoitzaren premiei erantzun egokia eman diezaion ahalegintzen gara, jardun indibidualizatzailearen bidez eta aniztasunari arreta eskainiz, ikasle bakoitzaren gaitasunei dagozkien aukera egokiak bilatzeko.

Lehen mailetan gure estrategia metodologikoa ikasleen zuzeneko parte hartzean oinarritzen da batik bat. Pixkanaka beste metodo batzuk sartzen ditugu (dedukzioa, arrazoiketa logikoa, analisia...) ikasleak irakateko eta ikasteko prozesuan parte hartze aktiboa izan dezan bultzatzeko.

Erabiltzen ditugun ebaluazio-irizpideek kontuan hartzen dituzte nola ikasleek ikasitako edukiak, hala jarraitutako ikasketen prozesuak, beraz ebaluazioa etengabekoa da.

Curriculum (zer lantzen den, nola, non, zertarako...) ikastetxeko ikasleen eta eskola-ingurunearen ezaugarrietara egokitzen ahalegintzen gara. Hortaz, sistematikoki ebaluatzen da curriculum eta irakasleen lana.

Banaezintzat jotzen dugu kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukien ikaskuntza. Ikasleen garapen-etapak jarraituz, haurtzaroko eta gaztaroko adin eta aro guztietarako, ahalmen mental, afektibo, erabaki-hartzaile eta aktiboen egokitze eta harmonia lortu nahi da. Hartara ikasleek bizitza gozatu eta pertsona gisa dituzten ardurak hartzeko prestatu nahi ditugu, dauden gizarte eta kultura zehatz honetan, dituzten ardurak onartzeko. Gure egiten ditugu eta nahitaezko gure ikasleek izan behar dituzten oinarritzko konpetentzia hauek:



Pentsatzen eta ikasten ikasi

- Modu koherentean eta kritikoa pentsatzen ikastea eta nor bere buruan konfiantza izatea.
- Ekimena izatea eta esfortzua egitea.
- Erantzukizunak hartzea.
- Ikasleen sen kritikoa bultzatzea.
- Jakin-minarekin batera sormena lantzea eta garatzea.
- Banakako nahiz taldeko lana sustatzea.

Komunikatzen ikasi

- Komunikazioaren arloak (ahozko eta idatzizko testuak...), zuzenki, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea.
- Informazioaren teknologiak eta komunikabideak erabiltzea.
- Arte-sorkuntza ulertzea, ezagutzea eta balioestea.
- Hainbat iturritatik jasotako informazioa interpretatzen jakitea, berria sortzea eta ebaluatzea.

Elkarrekin bizitzen ikasi

- Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean; aldi berean, euskal hizkuntza eta hezkuntza eta, oro har, kultur aniztasuna aintzakotzat hartu eta errespetatzea.
- Sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea.
- Balioetan oinarritutako hezkuntza gauzatzea, bizikidetzako arauak ezagutzea eta errespetatzea.

- Harreman positiboak izaten eta gatazka egoeretan elkarrizketa eta negoziatzora jotzen ikastea.

Norbera izaten ikasi:

Pertsona gisa garatzen ikasi:

- Kritiko eta arduratsua izatea norberaren buruarekin eta gainerako pertsonekin.
- Autoestimua eta gaitasun emozionalak lantzeaz gain, horiek adieraztea nortasunaren esparru guztietan, baita gainerako pertsonetikiko harremanetan ere; beti ere indarkeria eta aurreiritziak alde batera utzita.
- Ikasleak osotasunean harturik aniztasunari erantzuna ematea.
- Norbera izanda pertsona autonomoa izatea printzipio etikoei jarraituz.

Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikasi:

- Ikasleak modu egokian ikustea bere burua, ezaugarriak eta aukerak; halaber ere, burutzen dituen jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea.
- Giza gorputzaren eta sexualitatearen funtzionamenduaren alderdiak ezagutzea, ulertzea eta onartzea.
- Ingurune naturala balioestea eta hartaz arduraz gozatzea. Bestalde, giza jarduerak izadian duten eragina ulertzea eta ingurumena zaintzen, babesten eta hobetzen laguntzea.

Egiten eta ekiten ikasi

- Izaera ekintzailea izatea, plangintzak egitea, konpromiso, ardurak eta erabakiak hartzea.
- Lan egiterakoan aukeren alderdi onak eta txarrak balioestea, eta erabakiak hartzerakoan norberaren gaitasunetatik abiatzea.
- Etengabeko hobekuntzaren beharraz jabetzea.

11.- Kudeaketa-eredua /Kalitatea

Axular Lizeoaren kudeaketa-eredua parte-hartzailea da eta kudeaketa horren eraginkortasuna estamentu guztien partaidetzak bermatzen du, hots, guraso, irakasle, ez-irakasle eta ikasleak. Kudeaketa- eta funtzionamendu-organo guztiek oso garbi hartzen dituzte beregain dagozkien ardurak eta horien arabera egiten dute lan.


Gobernu-organo gorenari Batzar Nagusia da; bertan gurasoek parte hartzen dute.

Artezkari-tza Kontseiluak —Batzar Nagusiak izendatzen du—, Ikastolaren gobernua eta ekintzak kudeatzen ditu.

Ikastolaren kudeaketa, esparru akademikoan zein administratibo eta ekonomikoan, Zuzendaritza Taldearen esku dago.

Kudeaketa orokorrerako *EFQM* deritzan eredu europarra erabiltzen da. Horren bederatzi irizpideak dira lanerako eta ebaluaziorako hautatu diren tresnak. Eredu hori bikaintasunaren zortzi oinarritzko kontzeptuetan ardatzen da: bezeroa, emaitzak, lidergoa, prozesuak, pertsonak, sormena eta berrikuntza, aliantzak eta ingurumena.

EFQM ESKEMA OROKORRA



12.- Proiektu global bateko partaide. Ikastolak eta irakaskuntza-kooperatibak

Axular Lizeoak, bere nortasun propioari eusten dion arren, nortasun kolektibo batean ere parte hartzen du, hain zuzen Euskal Herriko erakunde hezitzaile den Ikastolaren eta irakaskuntza kooperatibenean. Horrenbestez, bat egiten du honako ezaugarri hauekin:

1. Euskalduntasuna, hezkuntza integral, eleaniztun eta kultura artekoaren ardatz gisa.
2. Bere eskola-entitateen izaera zibila, gurasoek, ikasleek, irakasleek eta laguntzaileek osaturiko hezkuntza-komunitatean oinarritua.
3. Hezkuntza-sisteman duen eragina, bere ekintza berritzailearen ondorioz.
4. Administrazioarekin lankidetzaren zerbitzu publikoan.
5. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza aktiboa (gurasoena eta irakasleena, bereziki) eskola-entitatearen gobernuan.
6. Kudeaketa autonomoa.
7. Ikastolen Elkartearen baitan gertatzen den ikastolen arteko lankidetzaren.
8. Elkartasun-kutxa, banakako eta taldeko konpromisoa, ikastolen arteko elkartasun-laguntzarako.
9. Eduki propioa duen lan-esparru espezifikoak.
10. I+G+B oinarritako prozesu gisa, bakarra hezkuntza-sektorean.
11. Ereduari lotutako prestakuntza-plana.
12. Ikasmaterialgintza propioa, mota guztietako euskarri eta modalitatekoak.
13. Ekonomia sozialeko jite juridikoa eta finantzarioarekin lotutako izaera.
14. Balore kooperatiboak bereganatzen ditu.

15. Euskal Herriari atxikia eta Munduari irekia.

III.- Zentroaren egiteko, xede eta helburuak.

Egitekoa

Haur eta nerabeari giza garapen integrala eskaini, guraso eta irakasleekin harreman estuan eta Euskal Herriaren kulturaren txertaturik..

Xedeak

Gure ikasleei tinko eta zabala izango den hezkuntza oinarria ematea, gure euskal kulturak duen berezitasunean sakonki erroturik, kulturaren unibertsaltasunerako bidea erraztuko dena.

Ikastolara datozen ikasle guztiak, euskaraz mintzatu ala ez, derrigorrezko oinarrizko hezkuntza amaitutakoan euskaldunak izan daitezzen lortzea. Baita maila ertain edo goi-mailako ikasketak euskaraz, gazteleraz edota ingelesez egin ahal ditzaten bermatzea ere.

Gure ikasleei euskal kultura bizirik dagoen zerbait dela transmititzea. Halaber, beste zenbaitekin harremanetan izaki, gure kultura aberasteko eta garatzeko erantzukizun eta ardura dutela, hori gizaki eta herrien arteko batasun tresna izan dadin.

Gure ikasle orori banakako giza eta eskola-orientabidea zein orientabide profesionala eskaintzea.

Helburuak

Lan- eta ikasketa-ohiturak eskuratzea indartu.

Arlo guztietan adierazpen gaitasuna garatu eta sormena sustatu.

Informazioa jasotzeko gaitasuna garatu, norberaren irizpideekin eta iturriak, baliabideak eta mezuak hautatuz.

Elkarbizitzarako gaitasun eta jarrerak garatu baita hori posible egiten duten arauetara begirunea ere.

Ikasleen artean euskararen eta euskal kulturaren ordezkari direlako ideia zabaldu.

Ikasleen artean beste ideia, uste eta gertakari kulturekiko onarpenaren zentzu sakona garatu.

Instituzio eta gizakiekiko errespetu ohiturak ikasleen artean garatu.

Ikasleak gizabidezko gai eta kultura-gaien aldera sentsibilizatu.

"Axular Lizeoak, gizartean txertatuta dagoen elkarte biziduna den heinean, ez du bere baitan gorderik egon nahi; aitzitik, bere ikasleen bitartez balio guzti horien zabalkunde-gune izan nahi du."

IV.- Ikastolaren hezkuntza-eredua

Kontuan hartu behar da gure hezkuntza beti ere lortu nahi dugun pertsona eredura bideratu behar dela. Aurreko atalean zehaztu ditugun ezaugarriak beti izan behar ditugu gogoan gure hezkuntza-jardueretan, pertsona horiek (ikasleak) ahalik eta gaitasun gehienak gara ditzaten, gizabanako bakar eta errepikaezin diren heinean, eta gizartean eta ingurune naturalean murgildurik dauden heinean. Beraz, AXULAR LIZEOAREN hezkuntzaren oinarriak eta ezaugarriak ondorengo hauek dira eta gure **ikasleen irteera-profil orokorrak aldagai hauek izango ditu:**

IZAERA HEZITZAILEA: Gizartean bizitzeak eragingo dizkion arazoei eta gaiei erantzuten jakingo duen hiritar gisa aritzeko kompetentziak landuko dituen hezkuntza.

Horrek esan nahi du:

- Kompetentzien garapenean oinarritzen dena
- Ikasitakoari zentzia emango diona
- Lehiakortasun berekoia baztertuz elkarrekiko solidaritatea bultzatzen duena
- Ikasleen hezkuntzan bere ingurune hurbila kontuan duena
- Ingurune fisiko eta sozialean izaten diren giza jardueren arteko erlazioez jabetzen laguntzen duena
- Natura eta ekologia zaintzearen aldeko kontzientzia garatzen duena
- Informazio eta komunikaziorako teknologia berriak era egokian erabiltzen irakasten duena
- Eleaniztasuna bermatzen duena

IZAERA PARTE-HARTZAILEA: Arlo guztietan komunitateko kideen parte hartze aktiboa bultzatuko duen hezkuntza.

Horrek esan nahi du:

- Talde-jarduerak antolatu eta egitean elkarlanean aritzea bultzatzen duena, jarritako arauak onartuz, interes pertsonalak eta talde-interesak uztartuz.
- Ikaskuntza aktiboa, sormenezkoa, parte-hartzailea eta ekimenezkoa indartzen duena
- Gizarteko kideen ezaguera eta trebetasunak hezkuntzan txertatuz aberasten duena
- Herritar aktibo eta kritiko izaten lagunduko duena

IREKIA: Euskalduntasunetik abiatu irrekitasunez munduari begira orientatzen den hezkuntza.

Horrek esan nahi du:

- Herrira irekitako ikastola, euskararen erabilpen normalizatua eta euskal kultura bultzatzen duena. Gainera, jasotako kultura-ondarearen aberastasunaz jabetzen dena eta hori sustatzeko konpromisoa duena
- Ikastolatik pasatzen diren ikasle guztien euskararen ezagupen sendoa ziurtatzen duena
- Eguneroko erabileran euskaren aldeko kontzientzia izatea bermatzen duena
- Ikaslea euskalduntasunetik abiatu irrekitasunez munduari begira orientatzen duena
- Gurekin bizi diren beste kulturen ekarpenaz aberasten irakasten duena
- Berrikuntzetara irekia dagoena

ANIZTASUNATASUNA BILDU ETA BIDERATZEN DU: Ikasle bakoitzak duen ahalmenen arabera, ikasleen gaitasun guztiak garatzen laguntzen duen hezkuntza.

Horrek esan nahi du:

- Orientatzailea
- Aniztasun orori erantzuten diona
- Desberdintasunak gainditzeko bideak zabaltzen dituena

- Ikasle bakoitzaren ezagutzatik abiatzen dena
- Ikasteko erritmo guztiak errespetatzen dituen; eta horretarako hainbat metodologia erabiltzen dituen, taldeak malgutasunez osatzen dituen, programak egokituak gela barruan lantzen dituen...
- Haur bakoitzaren nortasun eta harremanei, eduki akademikoei bezainbesteko garrantzia ematen diena; eta horretarako tutoretza ekintzak bultzatzen dituen, gurasoekin elkarrizketak zaintzen dituen...
- Ikasleen interes eta gaitasunak baliatzen dituen, arlo akademikoan nahiz pertsonalean.
- Familia-eredu guztiak kontuan dituen
- Sexu identitatean oinarritutako edozein diskriminazio mota baztertu eta berdintasunean hezten duena

IZAERA AFEKTIBO ETA EMOZIONALA: Emozioak ulertzen eta bideratzen laguntzen duen hezkuntza.

Horrek esan nahi du:

- Emozioak modu positibo batean bideratzen irakasten duena
- Familia eta ikastolaren arteko zuzeneko harremanetan eta konfiantzan oinarritutako elkarlanean aritzen dena
- Heldutasuna eta autokontzeptu positiboa bultzatzen duena
- Besteekin erlazio zintzoak izaten laguntzen duena

V.- Antolamoldea

Gobernu- eta funtzionamendu-egitura.

1- Elementuen definizioa:

- 1.1-Hezkuntza-komunitatea, Batzarra, Artezkaritza Kontseilua, Zuzendaritza , Irakasleen Klaustroa, ez-irakasleak, ikasleak, gurasoak.
- 1.2- Zuzendaria, ikasketaburua, koordinatzailea, Talde Pedagogikoa.
- 1.3- Tutorea, irakaslea, psikologoa, orientatzailea, mintegiburua.
- 1.4- Administratzailea, administraria, etxezaina, jantoki-zerbitzua eta garbiketa.

2- Gobernu-egitura:

- 2.1- Gobernu-maila.
- 2.2- Gobernu-organoak.
- 2.3- Batzar Nagusia.
- 2.4- Artezkaritza Kontseilua.
- 2.5- Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, bokalak, batzordeak.

3- Funtzionamendu-egitura: (Funtzioen eskuliburua)

- 3.1- Zuzendaritza Taldea: zuzendaria, ikasketaburua, administratzailea.
- 3.2- Talde Pedagogikoa.
- 3.3- Irakasleen Klaustroa.
- 3.4- Organo operatiboak:

A.(Pedagogikoak)

- 1- Koordinatzailea
- 2- Mintegiburua
- 3- Irakaslea
- 4- Irakasle-tutorea
- 5- Ikaslea
- 6- Irakasleen delegatua
- 7- Psikologoa
- 8- Gurasoak
- 9- Kirol- koordinatzailea

B.(Ekonomiko eta administratiboak, eta funtzionalak)

- 1- Garbiketa
- 2- Jantokia
- 3- Etxezaina
- 4- Kontabilitate-administraria
- 5- Administratzailea

1.- Elementuen definizioa

1.- Hezkuntza-komunitatea: gurasoek, irakasleek eta ez-irakasleek osatzen dute. Horiek guztiek , erantzukizun desberdinak asumituz, lan koordinatua egiten dute esparru hezitzaile eta euskaldun baten zerbitzuan, hezkuntza-komunitateko funtsezko partaide diren ikasleengan eragin zuzena izateko.

2.- Batzar Nagusia: Batzar Nagusian Axular Kooperatiba Elkarteko bazkideek hartzen dute parte. Bazkide dira lizeoko ikasleen gurasoak, langileak eta oro har kooperatiban gutxienez akzio bat duen edozein pertsona fisiko edo juridiko.

3.- Artezkaritza Kontseilua: Batzar Nagusiak hautatua, lizeoko kudeaketa eta ordezkaritza arduraduna da.

4.- Zuzendaritza: Ikastolaren kudeaketa eta funtzionamenduz arduratzen den organoa da, hainbat pertsonaz osatua, besteak beste zuzendaria, ikasketa burua eta administratzailea.

5.- Irakasleen Klaustroa: Irakasle guztiak osatzen dute eta lizeoko zuzendaria du buru.

6.- Ez-irakasleak: Administrazio-kontabilitatearen arloaz eta oro har zerbitzuez arduratzen diren langileak dira.

7.- Ikaslea: Bere garapen eta heldutasunaren protagonista, hezkuntza-komunitatearen izateko arrazoa da.

8.- Gurasoak: Nahi eta ardura osoz seme-alabak ikastolara bidaltzen dituzten pertsonen multzoa da.

9. Kirol koordinatzailea: Eskolaz kanpoko kirol-antolaketaz eta -funtzionamenduz arduratzen den pertsona da.

10.- Zuzendaria: Ikastolaren funtzionamendu ona bermatzeko ardura duen pertsona da, ikastetxearen bi arlo nagusietan, hots, pedagogikoan eta ekonomiko eta administratiboan.

11.- Ikasketaburua: Eskuordetzez, arlo pedagogikoaren funtzionamendu onaren hurrengo arduraduna da.

12.- Administratzailea: Eskuordetzez, arlo ekonomiko eta administratiboaren funtzionamendu onaren hurrengo arduraduna da.

13.- Talde Pedagogikoa: Arlo pedagogikoaz arduratzen den kide anitzeko organoa da. Ikasketaburuak zuzentzen du, eta horrek, koordinatzaileek eta mintegiburuek osatzen dute. Partaideak zuzendariak izendatzen eta hautatzen ditu, zuzendaritzako beste kideen eta harremanak ditu eta garatzen du bere harreman publikoen ohiko zeregina.

14.- Koordinatzailea: Ikasketaburuaren aginte eta zuzendaritzaren esanetara dago. Bere ziklo edo etaparen arduraduna da, baita hori beste zikloekin koordinatzearena ere. Zuzendariak ezartzen du lanpostu horretan, zuzendaritzako beste kideen eta hezkuntza-komunitatearen aholkuak, txostenak eta proposamenak entzun edo irakurri eta kontuan izanik.

15.- Tutorea: Ikasgela bateko ikasleen moldaeraz zein ikasketen, hezkuntzaren eta euskalduntze-mailaren garapenaz arduratzen den irakaslea da.

16.- Irakaslea: Irakaskuntza-lana egiten duen pertsona da, ikasleen gaitasun eta jarrerak sustatzen dituena; pedagogia aldi berean pertsonalizatu eta komunitarioarekin.

17.- Psikologoa: Ikasleekin prebentzioan eta hezitzaileen laguntzan lan egiten duen pertsona da, hezkuntza arloan bereziki. Ikasketaburuaren aginte eta zuzendaritzapean dago.

18.- Orientatzailea (lanbide arloan): Zuzendariak hautatzen du, zuzendaritzako beste kideen eta hezkuntza-komunitatearen aholkuak, txostenak eta proposamenak entzun edo irakurri eta kontuan izanik.

Ikasleek etorkizuneko ikasketak informaturik eta zentzuarekin aukera ditzaten behar den informazioa bildu eta banatzeko ardura duen pertsona da. Maila guztietako orientazio-

programak koordinatzen ditu eta irakasle-tutoreei beharrezko argibideak ematen dizkie.

19.- Mintegiburua: Hainbat arlotan bildutako ikasgai-materia multzo bati arreta berezia eskaintzeko ardura duen irakaslea da, horien koordinazioa bermatzeko.

20.- Administratzailea: Zuzendariaren eskuordetzez, arlo ekonomiko eta administratiboaren hurrengo arduraduna da.

21.- Kontabilitate-administraria: Idazkaritza orokorrari, langileen kudeaketari, erosketari eta biltegi eta kontabilitateari dagozkien lanak egiten dituena da.

22.- Etxezaina: Ikastolaren zaintzaz, mantentze-lanez arduratzen den pertsona da. Administrariaren edota zuzendariaren aginte eta zuzendaritzapean egiten ditu lanak.

23.- Jantoki- eta garbitasun-zerbitzuetako enplegatuek: Administrazioetik ezartzen zaien egitaraua jarraituz, dagokien arloan lana egiteaz arduratzen diren pertsonak dira.

2.- Gobernu-egitura

2.1.- Gobernu-maila:

Gobernu-maila norabideak ezarri, planak onartu eta hezkuntza-komunitatearen jarduera guztien moldaera eta emaitzak baloratzeko orduan azken hitza duen erakundea da.

2.2.- Gobernu-organoak:

Parte hartzen dute:

a) kide anitzeko organoak: Batzar Nagusia, Artezkaritza Kontseilua, Zaintza Batzordea.

b) kide bakarreko organoak: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta bokalak.

2.3.- Batzar Nagusia:

Ikus Kooperatibaren Estatutuetan III. atala, 21-28. artikulua.

2.4.- Artezkaritza Kontseilua:

Ikus Kooperatibaren Estatutuetan III. atala, 29-30. artikulua.

2.5- Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, bokalak eta batzordeak:

Ikus Kooperatibaren Estatutuetan III. atala, 30. artikulua.

3.- Funtzionamendu-egitura

Atal honetan funtzioak eta menpekotasun-norabideak azaltzen dira

3.1. Zuzendaritza Taldea: zuzendaria, ikasketaburua, administratzailea

Zuzendaria:

Ikastola osoaren funtzionamendu orokor egokiaren arduraduna da. Horrenbestez, esparru pedagogikoa zein ekonomiko eta finantzarioaz arduratu behar du, baita horien lorpenez ere.

Artezkaritza Kontseiluak aukeratzen du.

Ikastolaren funtzionamenduan parte hartzen duten pertsona guztiak zuzenean bere gidaritzapean daude. Karguaren iraupena Artezkaritza Kontseiluaren esku dago.

Bere zeregina ikastolaren barne-funtzionamendu egokia lortzea da, osagai askotako testuinguruan txertatuta dagoela kontuan hartuz. Ondorengo bidez:

- Inguruneko testuinguru horren guztiaren arreta eta sakontzea, hori iragazteko eta ondorioz,
 - eragin negatiboak neutralizatu,
 - euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta sustapenerako mesedegarri diren aprobetxatu, ikasleen giza eta euskal heldzea baliatuz.
- Hezkuntza-komunitatearen bizitzari arreta,
 - betekizun komun bat duela ohartuta, komunitate hori talde bat osatzera animatuz, errespetuzkoa eta egunetik egunera elkartasun handiagokoa,
 - hezkuntza-komunitateko kideen garapen eta nahiak zainduz eta horrek berarekin dakarren harrera ona eginez.
 - harreman psikologiko eta soziologiko horiekin batera arlo eta funtzioen arteko lotura sustatuz, hezkuntza-komunitateak bilatzen duen helburua aintzat hartuta
 - Zuzendaritzak Artezkaritza Kontseiluarekin dituen ohiko harremanak ere sustatuz, funtzionamenduri dagokionez organo betearazlea baita.

Eginkizun hori, ondorengo arloekin zerikusia duten zeregin ugaritan garatzen da:

- ikastolaren gai orokorrekin
- arlo pedagogikoarekin
- arlo ekonomiko eta administratiboarekin.

Izaera orokorreko zereginen artean zuzendariari dagokio:

- Ikastolaren ordezkaria izatea eta, Artezkaritza Kontseiluarekin zein horren lehendakariarekin koordinaturik, harreman publiko arruntak sustatzea.

- Ziurtagiri eta dokumentu ofizialak ikus-onestea. Badu zeregin hori beste inoren esku uzteko aukera.

- Ikasketaburua eta administratzailea izendatzea hezkuntza-komunitateko partaideen aldetik jaso ditzakeen aholkuak entzun eta kontuan izanik. Bi horiekin batera Ikastolako Zuzendaritza Taldea osatuko du.

- Zuzendaritza Taldea presiditzea.

Arlo orokor honetan, Zuzendariaren zeregina izango da ikastolaren planifikazio orokorra egitea, eta horretarako, epe ertainera lortu nahi dena izango du kontuan.

Arlo pedagogikoan, ikasketaburuarekin batera zuzendariari ondorengoak egitea eta sustatzea dagokio:

- Zentroaren Urteko Plana egitea, ikasleen ezaugarriak kontuan izanik. Horretarako bitarteko egokiak eskuratuko ditu, organizazio koordinatua burutu eta hezkuntza-helburu zehatzetan amaituko diren jardunbideak markatu. Hori guztia egiaztatzeko ebaluazio-irizpide batzuk zehaztuta izango ditu.

- Zentroaren Urteko Plana betearaztea, zuzenduz eta horren moldaera eta lorpenak behatuz. Zentroaren Urteko Planaren programazioari dagokionez, zuzendariak:

- Irizpide hauek finkatu eta erabaki hauek hartzen ditu:

- ikasleak erakartzeko moduak
- ikasle-gaien onespena.

- Ondorengo lanak ere egiten ditu:

• organigrama funtzionala, Artezkaritza Kontseiluak finkatzen dituen ikasle/gela eta irakasle/gela ratioekin adostasunean.

• langileen organigrama, irakasle eta langile laguntzaileak horien hezkuntza-lanpostuekin lotzen duena, ikasketaburuak izendatutako koordinatzaile eta tutoreen izendapenak onetsi ondoren.

• errekurtsio material, suntsigarri eta ez-suntsigarrien programa aurrekontuekin adostasunean, baita horien banaketa ere.

- Azkenik, arlo pedagogikoaren barruan, zuzendariari dagokio zerbitzu pedagogiko hauen azken erabakia: liburutegia, ikus-entzunezko bitartekoak, tailerak, eta abar.

Jarduera horien guztien berri emango dio Artezkaritza Kontseiluari, eta ikastolaren funtzionamenduan laguntzen duten partaide guztiei.

Arlo ekonomiko eta administratiboan zuzendariari dagokio:

- Azpiarlo ergonomikoan, ikastolako obra, instalazio eta altzarien premien programazioan zentzu ergonomikoa ezarri parte hartzea, horrek berarekin dakarren kontrolarekin; baita zerbitzu osagarri hauen programazio eta kontrolean parte hartzea ere: eskola garraioa, jantokia, eta abar.

- Azpiarlo juridiko eta laboralean:

- Langile-zerrendako premiak aurreikustea langile berrien kopuruari eta ezaugarriei dagokienez, haien profesiogrametan definituta. Aukeratutako hautagaien kontratuak formalizatzea, ikastola mugaturik dagoen hitzarmen laboral eta juridikoen baldintzen arabera. Kontratu horiek ikastolako titularrak onetsi beharko ditu.

- Langileen jardunak arautzea eta betearaztea, ikastolaren beharren eta indarrean dagoen lan-hitzarmenen arabera.

- eskola-egutegia, asistentzia- eta puntualtasun-plana prestatuz;
- beheko mailetan konpondu ez diren kexu eta eskariei jaramon

eginez;

- langileen lan-ordezkariekin ohiko harremanak edukiz.

- Finantza eta ekonomiaren azpiarloan:

- Aurrekontuen prestaketan parte hartzea, Artezkaritza Kontseiluaren irizpideak jarraituz, inbertsioak, gastuak, sarrerak, ikasleen kuotak eta langileen ordainketak aurreikusita,

- ondorengoei dagokionez, behar izanez gero erabakiak hartuz esku hartzea:

- aurrekontu-baliabideen kudeaketan,
 - kontabilitate-erregistroan,
 - ekonomia-moldaeraren kontrolean
- ikastolako funtzionamendu administratiboaren jakinaren gainean egotea.

Guzti horien berri Artekazkitza Kontseiluari emango dio.

Era berean, zuzendariak:

- Harreman erregularrak ditu:
 - Batzar Nagusiarekin
 - Artekazkitza Kontseiluarekin.
 - Zuzendaritza Taldearekin, bera baita buru.
 - Klaustroarekin
 - Guraso Laguntzaileen Batzordearekin.
 - Talde Pedagogikoarekin.
- Harreman iraunkorrak ditu:
 - Ikasketaburuarekin.
 - Administratzailearekin
 - Baita guraso laguntzaileekin, irakasle eta langile ez-irakasleekin ere, baina ez hain sarri eta sakon.
- Dagokion zuzendaritza animatzaile zereginarekin bat etorritik, hezkuntza-komunitateko partaideak hartzeko prest dago;
- Ondorengo erakundeekin harremanak ditu eta garatzen du bere harreman publikoen ohiko zeregina: Ikastolen Elkarteak, gertuko ikastetxeak, Hezkuntza Saileko erakunde ofizialak, Udala eta kultura-erakundeak.

Ikasketaburua:

Ikasketaburua, eskuordetzez, arlo pedagogikoaren funtzionamendu zuzenaren hurrengo arduraduna da.

Zuzendariak aukeratzen du hezkuntza-komunitatearen aholkuak, txostenak eta proposamenak entzun edo irakurri ondoren. Horren izendapena Artekazkitza Kontseiluak eta Batzar Nagusiak berresten dute.

Horren berehalako aginte eta zuzendaritzapean daude arlo pedagogikoaren funtzionamenduan parte hartzen duten pertsona guztiak.

Karguak hura izendatu zuen zuzendariarenak adina irauten du.

Ikastolak bizi duen egoera historikoan arlo pedagogikoaren funtzionamendu zuzena lortzea da horren zeregina, eta horretarako

- gai hauek izango ditu kontuan:
 - pedagogiko eta didaktikoak
 - linguistikoak
 - kulturalak

adituek, nahiz xede legalek sorrarazitakoak, eta horiek arlo pedagogikoan eragiten dutenez gero, sakontze-lana behar dute, arlo horrek etengabe eguneratua jarrai dezan.

- arlo pedagogikoaren bitzita berari arreta
 - egiazko lan hezitzaile taldea sortzea bultzatuz, bere laguntzaileen

nahiak jasotzen dituen eta ikasleen giza eta euskal heltzearen zerbitzuan jartzeko.

- harreman psikologiko eta soziologiko horiekin batera, funtzio eta zeregin guztien loturak bultzatuz, arlo pedagogikoak funtzionamendu arin eta eraginkorra izan dezan, eta arlo ekonomiko eta administratiboarekin ere koordinaturik.

Zeregin horiek maila askotan garatzen dira, arlo pedagogikoaren

- gai orokorrekin
- moldaera eta helburuekin erlazionaturik

Gai orokorren artean ikasketaburuari dagokio:

- pedagogia-arloko kanpoko testuinguruari arreta eskaintzea eta eguneratua egotea pedagogia, didaktika eta linguistika gaietan, baita gora-behera kulturaletan eta arlo pedagogikoarekin zerikusia duten legezko aginduetan ere.

- tutoreen eta Talde Pedagogikoa osatuko duten koordinatzaileak izendatzea, zuzendariak berretsi ondoren.

- Talde Pedagogikoaren presidentzia.

Zuzendaritza Taldean egiten dituen deliberamenduez gain, ikasketaburuari dagokio

- Zentroaren Urteko Plana xehetasun gehiagorekin garatzea
- hori gauzatu dadin zuzendaritza- eta kontrol lanak egitea.

Zentroaren Urteko Planaren xehetasunezko garapenari dagokionez, zikloa ikasturteko programa egitea dagokio, eta horrek jasoko du

- ikasleen ezaugarrien azterketa
- baliabideen haztapena, eta ondorioz irakasle berria eguneratzea ikastolaren baliabidei, jardunbideei eta helburu hezitzaileei dagokionez.

- formazio-ikastaroak programatzea eta behar izanez gero dagozkion baimenak eman.

- baliabide horien antolamendu dinamikoa, irakasleei dagozkien eskolak esleituz; irakaslan eta ebaluazioen eskola-egutegia ezarriz; eskolen ordutegia banatuz; eta noizbehinka gerta daitezkeen irakasleen ordezkatzekak kontuan izanez.

- metodo pedagogikoen zikloei ezartzen dizkieten jardunbideak.
- ziklo bakoitzean lortzea espero diren helburu errealista eta bideragarriak, horri egokituta ikasleentzat orientabide pertsonal eta profesionalerako plana;
- ondorengoei dagozkien ziklo bakoitzeko ebaluazio-irizpideak:

- programazioei
- erabilitako metodo pedagogikoei
- ondorioei
 - + akademikoak
 - + hezkuntzakoak

Ikastetxeko Planak garatu duen ziklokako urteko programa betearazteari dagokionez, ikasketaburuaren lana da:

- irakasle, guraso eta ikasleak animatzea ezarritako bidea jarrai dezaten, ahal den neurrian tutoreen eta gurasoen arteko arazoetan artekari lanak eginez;

- kontrolatzea:

- zikloen moldaera eta emaitzak, horien azterketa eta berrikuspena eginez: desbideratzeen zergatiak aztertu eta zuzentzaileak erabili; zailtasunak dituzten ikasleentzako jarraipena egin eta orientazio-zerbitzuekin harremanetan jarri; ikasketak ondo burutzen dituzten, ikasturteak errepikatzen dituzten eta ikastola uzten duten ikasleentzako tasak egin

- ezartzen diren diziplina neurriak

- irakasleriaren frogaldia zein asistentzia eta puntualtasuna,
- programatutako ekimen pedagogikoak.

Jarduera horien guztien berri emango die ikastolako arlo pedagogikoaren funtzionamenduan laguntzen dutenei.

Ikasketaburuak

- harreman erregularrak ditu
 - Artezkaritza Kontseiluarekin
 - Zuzendaritza Taldearekin
 - Talde Pedagogikoarekin, bera baita buru;
- harreman iraunkorrak ditu
 - zuzendariarekin
 - irakasleekin, bereziki koordinatzaileak badira
 - ikasleekin
 - psikologoarekin
- ikasleen hezkuntza eta formazioarekin zerikusia duen mailan hezkuntza-komunitatearekin harremanak izateko prest dago, eta aldi berean, ikastolako hezkuntza-komunitatetik kanpoko pertsonekin ere harremanak sustatzen ditu, arlo pedagogikoa hobetzeko bada.

Uneko egoeran bi ikasketaburu dira zentroan, bata Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako, eta bestea Bigarren Hezkuntzarako.

Administratzailea:

Administratzailea, eskuordetzez, arlo ekonomiko eta administratiboaren funtzionamendu zuzenaren hurrengo arduraduna da. Zuzendariak aukeratzen du. Horren izendapena Artezkaritza Kontseiluak eta Batzar Nagusiak berresten dute.

Horren aginte eta zuzendaritzapean daude ekonomia- eta administrazio-arloaren funtzionamenduan lan egiten duten pertsona guztiak.

Horren zeregina da ikastolaren ekonomia- eta administrazio-arloaren funtzionamendu zuzena lortzea da, izaera honetako zereginei arduraz behatuz:

- ergonomikoak
- juridiko eta laboralak
- ekonomiko eta finantzarioak.

Ekonomia- eta administrazio-arloan eragiten dutenez, horiek ezagutu eta aintzakotzat hartu behar dira dagozkion egokitzapenak egitearren, arloaren funtzionamendua hobetzeko.

- ekonomia- eta administrazio-arloaren beraren bitzita arretaz behatu
 - egiazko lan-taldea osatzea sustatuz; horrek bere laguntzaileen nahiak kontuan hartuko ditu eta hezkuntza-lanean zuzenki aritzen direnei laguntzera bideratzen ditu.
 - ekonomia- eta administrazio-arloko zeregin guztien koordinazioa burutuz, arlo pedagogikoaren funtzio eta zereginekin lotuta.

Zeregin horiek hiru azpiarlotan garatzen ditu:

- ergonomikoan
- juridiko eta laboralean
- ekonomia eta finantzakoan

langile ez-irakasleen lana programatuz eta zuzenduz.

Azpiarlo ergonomikoan, administratzaileari ondorengo zereginak dagokio:

- instalazio eta eraikinak:
 - obrak gainbegiratzea
 - prebentziozko eta jardunezko mantentzea zaintzea
 - segurtasun- eta higiene-neurriak betetzen direla ziurtatzea
 - zentroko zerbitzuak behatzea.
- sorospen- eta laguntza-zerbitzuak programatzea: garbiketa, botikina, makinak, etab., eta ongi zaintzea.
- zerbitzu osagarrien programetan kolaboratzea: eskola garraioa, jantokia, etab., eta horiek ongi egin daitezen arduratzea.

Azpiarlo juridikoan eta laborean administratzaileari dagokio:

- langile ez-irakasleen frogaldiaren jarraipena egitea
- puntualtasunaren, absentismoaren, langileen mugikortasunaren jarraipena eta azterketa egitea, eta ikastolan lege-mailako arauak eta lan-arlorako erabakitako arauak errespetatu daitezen adi egon.

Finantzen eta ekonomiaren azpiarloan, administratzaileari dagokio:

- Ikastolaren ondarea eguneratuta edukitzea bere
 - inbentarioa eta
 - dokumentazioarekin
 - irizpide teknikoak ezartzea eta aurrekontuen osaketan parte hartzea ondorengoak kontuan izanaz:
 - inbertsioak
 - gastuak
 - sarrerak
 - ikasleen kuotak
 - langileei ordainketak
 - halaber gastuak egiteko irizpideak finkatzea.
 - Jarraian aipatuko diren mailetan aurrekontuko baliabideen administrazio-plana finkatzea eta burutzea:
 - sarrera eta gastuak
 - kutxa eta bankuak
 - erosketak eta biltegiak
 - diruzaintza eta horren aurreikuspena
- eta beharrezko sinadura eduki.
- administrazio-planaren mugimenduak jasoko dituen kontabilitate-plana finkatzea eta burutzea ondorengo bidez:
 - liburu-edukitzailtza
 - kontabilitateko egoera-orria
 - kontabilitate analitikoa
 - ondorengo lanen kontrola eta azterketa egitea:
 - ekonomiaren moldaera
 - ikaspostuaren kostua

Jarraian aipatuko diren zeregin ekonomikoez eta administratiboez arduratzea ere badagokio:

- ikasleen matrikulak eta espedienteak
- langileen altak eta bajak
- nominak eta gizarte-aseguruak
- zergak

Administratzaileak:

- harreman erregularrak ditu:
 - Artezkaritza Kontseiluarekin
 - Zuzendaritza Taldearekin, bertako kidea baita
- harreman iraunkorrak ditu
 - zuzendariarekin
 - arlo ekonomikoan eta administratiboan lan egiten duten pertsonekin
- arlo ekonomikoarekin eta administratiboarekin zerikusia duten gaietan hezkuntza-komunitateko kideak arretaz hartzeko prest dago eta aldi berean ikastolatik kanpoko laguntzaileekin harreman egokiak sustatzen ditu, hala nola bankuekin eta finantza elkarteekin, hornitzaileekin, etab.

Azkenik, eta atal hau amaitzeko esan dezagun:

a) Ikastolaren harmoniaz garatzeko, Zuzendaritza Talde ona edukitzea funtsezkoa dela uste dugu, eta

b) Zuzendaritza Taldearen uneko egiturak egin beharreko zuzendaritza lanak beste batzuen eskuetara pasatzea ahalbidetzen duela, oztopo handiegirik gabe. Aldaketa horien gaia ordea, definitzeko eta zehazteko geratzen da.

3.2- Talde Pedagogikoa:

Talde Pedagogikoa, arlo pedagogikoaren funtzionamenduaz arduratzen den kide anitzeko organoa da. Hauek osatzen dute:

- ikasketaburuak, zuzendu egiten baitu,
- zikloen koordinatzaileak.

Era berean, batzuetan, ikastolako zuzendariak ere parte hartzen du Talde Pedagogikoan, zuzenki horren ardurapean dauden gaiak proposatzeko. Astean behin biltzen dira. Bileratan jarraitzen den prozedura denen artean eztabaidatzekoa eta erabakitzekoa da.

Horren zereginak bi alderdi ditu:

- zuzendariari, ikasketaburuari eta beste kideei begira, talde sendo baten laguntza eta euskarria ematea.

- arlo pedagogikoaren funtzionamenduari dagokionez:

- maila operatiborako Zentroaren Plana garatzen duten programak finkatzea;
- programak betetzeko ekintza bateratuak egitea, aldi berean langileen nahiei eta hezkuntza helburuen lorpen arin eta eraginkorrei erantzunez.

Talde pedagogikoari Zentroaren Plana osatzea dagokio, zikloetara egokituta eta ondorengo gaietan arreta jarrita:

- giza baliabideak: irakasleen prestakuntza-plana prestatzea eta ikastolako ikerketa eta berriztatze pedagogikorako programazioan parte hartzea.

- antolamendua:

- giza baliabideena
- baliabide material pedagogikoena, zikloka banatuz

- ekintza-lerroak, izan ere horiek

- ziklo bakoitzerako metodo pedagogikoak zehazten eta egokitzen

baitituzte

- arau akademikoak ezartzen baitituzte

- aukera askorekin ziklo guztietako ikasleengandik lortzea espero diren helburu errealista eta bideragarriak

- ebaluazio-irizpideak

- programazioak burutzearenak
- erabilitako metodo pedagogikoenak
- emaitza + akademikoenak eta + hezitzaileenak, ziklo guztietara egokiturik.

Programa horiek betetzeko prozesuan, Talde Pedagogikoari dagokio:

- ondorengo mailatan lan egiten duten pertsonak eta horien zereginak koordinatzea:

- ziklo bakoitzaren barruan
- zikloen artean
- sail eta zikloen artean
- ziklo bakoitzaren moldaera eta ondorioak xehetasunez aztertzea eta

berrikustea eta horrela Zentroaren Planak ziklo bakoitzerako garatu dituen programak kontrolatzea.

Talde Pedagogikoak eztabaidatzen dituen gaiak maila operatibotik gertuen daudenak dira. Batzuk berezkoak ditu, kide guztiei baitagozkie; aldiz, beste batzuk prestatuagoak iristen zaizkio:

- zuzendariaren eskutik

- ikasketaburuaren eskutik

- taldeko beste kideen eskuetatik. Ikasketaburuak, batzuetan, zereginak banatu eta aldatu ditzake.

Talde Pedagogikoaren eztabaida, sarritan, denen arteko erabakiak hartuz amaituko da. Akordiorik lortzen ez denean, erabakia ondorengoek hartuko dute:

- zuzendariak, gaien bat zuzenean berari dagokiolako bileran parte hartzen ari bada.

- ikasketaburuak. Horien erabakiarekin bukatuko da eztabaida, izan ere beraiek baitira arlo pedagogikoaren arduradunak eta hori aurrera eraman behar dutenak.

3.3- Irakasleen Klaustroa (orokorra, etapakoa, ziklokoa):

Klaustroa kide anitzeko organoa da, bere baitan biltzen dituen ikastolako irakasle guztiak eta ikasleen hezkuntzan zuzenki parte hartzen duten pertsona guztiak.

Klaustroak, dagozkion gaiak konpontzeko deitzen dituen bileretan, demokrazia-zko prozeduraz jarduten du.

Erabakietan eta aldi berean:

- bere kideen nahiak hartzen ditu kontuan
- garbi dauka nahi horiek beste nahi batzuen barruan kokatzen direla, hain zuzen ere hezkuntza-helburu batzuk lortzeko konpromisoa daukan hezkuntza-komunitate batenetan.

Horren zeregina funtzionamendura bideraturik dago.

Funtzionamendura bideratutako zeregin hori honetan datza:

- informazio arrazoizkoa eta gardena jasotzean
 - ikastolaren moldaeraz
 - emaitzez
- iritzia ematean
 - ikastolaren funtzionamendua hobetzera bideratutako iradokizun gisa.
 - gai orokorretan eta arlo pedagogikoko gaietan kontsulta-organo gisa.
 - azpiarlo juridikoko eta laboreko gaietan kontsulta- eta eztabaida-organo gisa. Iritzi horrek ez du funtzionamenduaren zuzendaritza arina oztopatzen; baina, behin jaso ondoren, plan eta programetarako atxikipen orokorra bultzatuko du. Horrek guztiak jarrera bat ekarriko du, hezkuntza-lanari emana.

Klaustroari ondorengoei buruz galdetuko zaio:

- Zentroaren Urteko Planaren garapenaz, zikloka
- zikloei ezarritako metodo pedagogikoaz
- arau akademikoez, errekerperazio- eta errepikatze-irizpideez
- ziklo guztietan lortu nahi diren helburu errealistez eta bideragarriez
- ziklo bakoitzeko moldaeraren eta emaitzen ebaluazio-irizpideak.

Klaustroaren lana da kontsultatu zaizkion programak betetzeko eta dagozkion helburuak lortzeko gauza izatea. Ondorengo gaiei buruz informatuko eta galdetuko zaio:

- ebaluazioaz
 - horren moldaeraz
 - lortu diren emaitzez
- desbideratzeen zergatien azterketaz
- behar izanez gero ezarri behar diren zuzenketez.

Azkenik, funtzioen eskuliburua egiten ari den unean kontsulta egingo zaio Klaustroari eta ondorengoak aztertzeke eskatuko zaio:

- elkarbizitzarako araudia
 - ikastolako langileena
 - ikasleena

3.4- Organo operatiboak

A. Organo operatibo pedagogikoak

Koordinatzailea:

Zikloko koordinatzailea, ikasketaburuaren agindu eta zuzendaritzapean dago eta ondorengo arloen hurrengo arduraduna da:

- bere zikloaren / etaparen funtzionamenduarena
- bere zikloaren eta beste zikloen arteko koordinazioarena.

Ikasketaburuak ziklo bateko irakasleei kontsulta egin ondoren aukeratzen du guztien artetik. Horren izendapena ikastolako zuzendariak berresten du. Talde Pedagogikoko partaidea da.

Zeregin bakarra du, baina bi mailatan garatzen da:

- programazioan bata, Talde Pedagogikoan egingo duena,
- betearaztean bestea, bere zikloko irakasle eta burutzen diren ekintzei dagokiena.

Koordinatzaileek, Talde Pedagogikoko partaide diren heinean:

- Zentroaren Urteko Plana garatzen dute eta beren zikloetan ezartzen.
- zikloen programak koordinatzen dituzte elkarren artean.

Zehazki, koordinatzaileek beren ziklorako eskola-jarduerak programatzen dituzte ondorengoak kontuan hartuta eta jasota:

- ikasleen ezaugarriak
- bere zikloko irakasleen ezaugarriak eta horien prestakuntza eguneratzea
- alde zuzenetik haztatu duen antolaketa bat eraikitzea:

• irakasle eta ikasleen egokitzea, irakasle eta gaien arteko koordinazioa, zikloko irakasleen ordezkapena aurreikustea ahaztu gabe.

- material eta ekipamendu pedagogikoaren hornidura.

- honako hauei dagozkien giza eta material-baliabideen ekintza-lerroak:

- ziklora egokitutako irizpide pedagogikoei
- irakasleek ezarri behar dituzten diziplina- irizpideei.

- helburu errealista eta bideragarriak:

- akademikoak
- hezitzaileak

ikasleen giza eta euskal heldutasunerako prozesuak errespetatuz eta bultzatuz, pixkanaka lortzea espero direnak.

- ebaluazio-irizpideak

- moldaerarenak
- emaitzenak

zikloan, guztiek berdintsu erabiliko dituztenak

Programa horiek, Talde Pedagogikoaren bileretan orraztu eta koordinatuko dira, eta horrela Zentroaren Urteko Planari amaiera emango zaio. Koordinatzaile bakoitzak bere zikloan laguntzen duten hezitzaileekin prestatuko ditu zikloko programa horiek eta horrela denek bere egingo dituzte, ez baitira koordinatzaileenak soilik.

Koordinatzaileari zikloa koordinatzean zera dagokio:

- bere zikloaren moldaera zuzentzea

- hezitzaileak animatuz eta lan-talde motibatua osatzeko heziz, beti

zikloko ikasleen eta ikastolaren zerbitzura.

- hezitzaileen jarduera guztiak bideratzea, beraien artean ezarritako

ibilbideen arabera.

- irakasleen eta zikloko ikasleen gurasoen bilerak prestatuz

- bere zikloaren moldaera beste zikloenarekin koordinatuz

- irakasle bati berez dagozkion zereginak egitea

- bere zikloan gertatzen dena kontrolatzea, baina ez urrutitik, baizik eta ebaluazio-bileretan parte hartuz; bilera horietan ondorengo egiten baita:

- irakasleen, tutoreen eta abarren jarduna zein emaitzak jarraitu eta

haztatu, erantzukizunak betetzen ez dituen irakasleari kargu hartuz, hala balegokio.

- baliabideak, horien antolamendua, ekintza-lerroak eta helburuak berrikustea, desbideratzeak eta porrotak bilatzeko eta komeni diren neurriak hartzeko.

Ebaluazioaren eta berrikuspenaren analisia zikloko irakasleekin eztabaidatu beharko du ondorengoa helburuekin:

- egoeraz jabetzea, egiatzko autokritika eta denen arteko errespetuzko kritika eginez; helburua ez baita errudunak bilatzea, arrazoiak aurkitzea baizik.

- ahalegin berrituen dinamizazioa, programatutako helburuak lortzearen, antolatutako bidea jarraituz.

Koordinatzaileak

- *harreman erregularrak ditu*

- zuzendariarekin

- Talde Pedagogikoarekin

- *harreman iraunkorrak ditu:*

- ikasketaburuarekin

- mintegiburuekin

- bere zikloko irakasle eta hezitzaileekin

- bere zikloko ikasleekin

- psikologoarekin

Mintegiburua:

Ikasgai edo sail bat koordinatzeko ardura duen hura da.

Dagokion ikasketaburuaren ardurapean dago. Mintegiak urtean gutxienez ohiko bi bilera izango dituzte. Bilera horien aktak idatziz jasoko dira.

Irakaslea:

Pedagogia pertsonalizatu eta komunitarioarekin, irakaslana gauzatzeaz arduratzen dena da. Irakaslan horrek irakasteko eta ikasteko jarduera sustatu behar du, ikasleen gaitasunak suspertzera bideratutakoa.

Zuzendariak izendatzen du lanposturako. Ikasketaburuak zuzenduko du bere lana zuzenean edo zikloko koordinatzailearen bitartez.

Bere zeregina da

- jarduera bateratu eta koordinatuak egitea

- ihardun indibidualagoak egitea.

Zentroaren Urteko Plana bere ziklorako zehazten lagundu behar du eskola-jarduerari dagokionez, eta bereziki:

- irakasle eta ikasleen arteko egokitzapenean

- irakasle eta gaien arteko koordinazioan zein material eta ekipamendu pedagogikoen premiatan

- pedagogia- eta diziplina-irizpideak prestatzen, horiek egokitzen baitituzte ekintza-lerroak haren gela eta zikloko ikasleen ezaugarrietara.

- ikasle zehatzen garapen eta ezaugarriak kontuan izanik, pixkanaka lortu nahi diren helburu errealista eta bideragarriak finkatzen,

- ebaluaziorako eta errekupeziarako irizpideak finkatzen, partaidetza horrekin, metodo pedagogiko batzuk jarraituz, ikasleen heldutasuna pixkanaka eragingo duten jarrera batzuk praktikan jartzeko konpromiso arduratsu eta motibatzaileerako oinarriak jarrita.

Zikloko irakasleek izan behar duten ezaugarri komunaren barruan, hau da irakasle bakoitzaren zeregina:

- bere ikasgaiaren eduki eta didaktikan eguneratuta egotea,
- bere ikasgaia programatzea, denboran, ordenarekin, progresiboki eta zailtasunen mailak finkatuz,
- bere ikasgaiaren irizpide pedagogiko eta didaktikoak ikasleen ezaugarrietara egokitzea, ikasleen dinamismoa eta gaitasunak sustatuko dituen irakaskuntza- eta hezkuntza-eragina efikaziaz prestatuz.

Prestaketa gauzatu ondoren, bere zeregina hau da:

- erabakitako modu pedagogiko eta didaktikoa jarraituz eskolak ematea,
- bere gelan ordena eta diziiplina betearaztea,
- ikasleen asistentzia-kontrola eramatea.

Bere zereginekin honela amaitzen du:

- ondorengo ebaluazio orekatua eginez:
 - bere jarrerarena
 - lan giroarena eta sortarazi duen diziplinarena
 - ikasleen emaitzena
- ebaluazio bateratua eginez mailako edota zikloko irakasleekin.

Desbideratzeak aurkitu badira, arazoak topatu ondoren, irakasleak baliabideak, ekintza-lerroak eta helburuak berrikusiko ditu, beti ere kontuan izanik ikasle jakin batzuk dauzkala eta horiek ezaugarri berezi batzuk dituztela

Irakasleak:

- *harreman erregulatuak ditu:*

- zuzendariarekin
- ikasketaburuarekin
- Klaustroarekin eta ikastolako irakasleekin

- *harreman iraunkorrak ditu:*

- bere zikloko koordinatzailearekin
- bere zikloko irakasleekin
- ikasleekin

- *bere gela edo ikasgaiarekin interesaturik dauden hezkuntza-komunitateko partaideak hartzeko prest dago.*

Abegi horrek erabat irekia izan behar du, seme-alaben moldaeraz eta garapen zehatzaz interesaturik dauden gurasoekin harremanak errazteko.

Tutorea:

Tutorea irakasle bat da arduratzen dena gela bateko ikasleen moldaera eta garapena zaindu eta jarraitzeaz. Hori hiru arlotan egiten du:

- akademikoan

- hezitzailean
- euskalduntze-prozesuan

Ikasketaburuak izendatzen du eta horren izendapena zuzendariak berresten du. Bere zeregin hezitzailea ikasketaburuak zuzentzen du, zuzenean edo zikloko koordinatzailearen bitartez.

Tutore-zeregina irakasle-zereginari gainjartzen zaio; baina irakasle gisa bere ikasgaiko eta irakaskuntzako alderdi akademikoetan finkatzen den bitartean, tutore bezala hezkuntzaren alderdiez gehiago arduratzen da.

Horrek, zeregin bereziak sorrarazten dizkio. Koordinatzailearekin eta zikloetako beste tutoreekin eztabaidatzen eta erabakitzen ditu gaiak eta elkar hartuta egiten dituzte ondorengo lan hauek:

- beren taldeko ikasleengan eragina duten helburu akademiko eta hezitzaileen koordinazioa,

- diziplina-eskakizunen koordinazioa,
- irakasle eta gurasoei bere taldeko ikasleei buruzko bilerak.

Irakasleei dagokionez:

- horiekin zehazten du harremanak izateko eta giza orientabidea gauzatzeko modua, bere taldeko ikasleen ezaugarriak kontuan izanez beti ere,

- jarraian aipatzen diren bileren buru da:

- bere taldeko ikasleen ebaluazio-bilerena
- beraiekin harremanak dituzten irakasleen autoebaluazio-bilerena

- beraiekin beharrezko berrikustek egiten ditu, koordinatzailearekin elkar lanean.

Ikasleei dagokionez:

- beraien aurrekari akademikoak, ezaugarri psikologikoak eta ikastolan daukaten moldaera ezagutu behar ditu,

- ondorengo eboluzioaren jarraipena egin behar du: osasuna, gaitasun mentala, interesak eta balioen barneratzea, autonomiaz erabakitzeko gaitasuna, dinamismo operatiboa eta familia- eta gizarte-giroan duen moldaera,

- ikasleekin notak eta kalifikazioak komentatu behar ditu. Gainera, ikasketetan eta eskolaz kanpoko jardueratan orientatu behar ditu, beraien ezaugarri psikologiko eta arazo pertsonalei buruzko erantzunak eman, eta ikasle bakoitzari lagundu behar dio, datuak ikusi ondoren, bere giza eta euskal heldutasunaren protagonista izaten.

Ikasle-taldeari dagokionez:

- taldearen dinamika arretaz jarraitzen du, eta ikasleak talde kohesionatu eta harmoniatsua osatzera animatzen ditu, giza balioak eta laguntasuna hor garatzen baitituzte,

- ikasle-taldearen emaitza akademiakoak eta hezkuntza-arloko emaitzak aztertzen ditu, baita lan- eta diziplina-giroa ere. Emaitza horiek beraiekin komentatu eta beraien prestakuntzaren protagonista izatera animatzen ditu, eskola barruko zein eskolaz kanpoko aukeretara eta esperientzietara irekitako talde solidario baten baitan.

- behar izanez gero, irakasleen eta bere taldeko ikasleen arteko bitartekotza egiten du arazoetan.

Ikasleen gurasoei dagokionez:

- Seme-alaben berri ematen die

- bakarka eta
- taldean, ondorengo sistema erabiliz:

- Irizpide nagusi bezala, ikasleen gurasoekin elkarrizketa pertsonalak egingo ditu ikasturtean zehar gutxienez bitan. Halere, arazoak dituzten ikasleen kasuan, elkarrizketa horiek behar hainbatetan egingo dira.

- Ikasturtean zehar bi bilera egingo dira gurasoekin gelaka. Irizpide gisa lehen bilera lehen hiruhilekoan egitea hartuko da eta bilera horrek ondorengo helburuak izango ditu: irakaslea eta gurasoak elkar ezagutzea, ikasturterako egitarau orokorraren eta irakasleak jarraituko duen bidearen berri ematea, lehen hiruhilekorako egitaraua eta helburuak zehazkiago azaltzea, irakasleei ikasturterako orientabide batzuk ematea, gurasoen kezkek ezagutzea, etab.

OHARRA: Gelako lehen bilera horretara , helburuak eta jardun-ildoak garbi eramatea komeni da, gurasoak lasai eta seguru uzteko.

Bigarren bilera, bigarren edo hirugarren hiruhilekoan egingo da. Ondorengoak jakinaraztea izango du helburu: ikasturtearen programazioa nola doan, aurkitu diren zailtasunak, azken hiruhilekoan lortu nahi diren helburuak eta ikasturtean egindakoa, udako oporretarako seme-alabentzako orientabideak, ikasturtearen ebaluazio globala. Iritzi eta kezkek ere jasoko dira.

Elkarrizketa pertsonalez eta geletako bileraz gain, gurasoek seme-alaben moldaeraren berri izango dute txosten eta buletin bidez. Haur Hezkuntzan, Hezkuntza Sailak agintzen duena jarraituz, bi txosten bidaliko dira ikasturtean zehar, lehena ikasturtearen erdian, eta bigarrena, amaieran.

OHARRA. Haur Hezkuntzan bilera orokor bat egingo da ikasturtean.

- gurasoekin kolaboratzen du, animatu egiten ditu eta seme-alabak hezteko moduari buruzko orientabideak ematen dizkie.

Tutoreak

- harreman erregularrak ditu:

- zuzendariarekin
- ikasketaburuarekin

- harreman iraunkorrak ditu:

- koordinatzailearekin
- zikloko beste tutoreekin
- bere taldeko ikasleei eskolak ematen dieten irakasleekin
- bere taldeko ikasleekin
- ikasleen delegatuarekin, taldearen egoera eta asmoak ezagutzeko

eta ideiak jasotzeko (Bigarren Hezkuntza)

- bere taldeko ikasleei dagokien gairen bategatik interesaturik legokeen hezkuntza-komunitateko edonor hartzeko prest dago.

Abegi horrek erabat irekia izan behar du bere taldeko ikasleen gurasoei dagokienez.

Ikasleak:

Ikasleak, beren garapen eta heldutasunaren protagonistak dira

- Komunitate batean bizi diren pertsona diren heinean

- euskalduntzea eta euskal kultura aktiboki sustatzeko prest dauden euskaldunak diren heinean.

Horrenbestez, ardura hauek hartuko dituzte:

- agintzen zaizkien eskolako eta eskolaz kanpoko egitekoak arretaz betetzea, ikastolan dauden denbora ahalik eta hobekien aprobetxatzeko,

- irakaslanetara erregularitasunez eta garaiz joatea,

- jarduera akademikoetan eta prestakuntza-jardueretan kideekin elkarlanean aritzea,

- ikastolako eraikina, instalazioak, altzariak eta materialak errespetatzea, beraien prestakuntzarako bitartekoak baitira,

- behar den duintasun, ordena eta garbitasunarekin portatzea eta elkarbizitza-jarrerara egokia erakutsi:

- bai hezkuntza-komunitateko kideenganakoa
- bai txertaturik daudeneko euskal komunitatearenganakoa

Protagonismo hori, ondorengoek eragingo dute positiboki:

- arlo hauetako giro egokiak:

- ergonomikoa, ongizate psikologiko eta fisiologikorako laguntzen baitu,
- irakaslan eta prestakuntza ongi bideratzearen ondorioz sortzen diren ordena, ikasketa- eta lan-giroa, eta lasaitasuna

- hezitzaileen giza tratuak, baldin eta

- ikasleak errespetatzen eta estimatzen badituzte
- ikasleen garapen ebolutibora egokitutako hizkuntza eta afektibitatearekin komunikatzen badira
- ikastolaren izaerarekin eta ikasleen ezaugarriekin bat datorren jokabidearekin portatzen eta aurkezten badira;

- irakaskuntza eta eskolako eta eskolaz kanpoko irakaspen eta jarduera batzuek, baldin eta berez edo egiten diren moduarengatik ondorengo lortzen badute:

- arreta piztea
- adimena esnatzea
- afektibitatea aberastea
- erabaki autonomoak erraztea
- dinamismoa jokoan jartzeko aukera ematea, eta horrela ikasleak horiekin identifikatzera eta horiek burutzera bultzatu;

- ondorengo arloei buruzko ebaluazioren informazioa:

- ikasleen etekin akademikoa
- ikasleen bilakaera psikologiko eta soziologikoa, hurrengoekin osatua:
- hezkuntza-orientabide eta orientabide profesionala
- ikasleen ekimen, iradokizun eta baita kexak ere aintzakotzat hartzea.

Ikasleen ardura ez da indibiduala soilik, eta estimulua ez du gizabanakoengan soilik eragiten. Ikasleek, hezkuntza-komunitatean azpitalde bat osatzen dute, beraz

- eskolaren moldaeran trabarik jartzen ez badute, bilerak egiteko aukera izan behar dute eta zuzendariari tratatuko dituzten gaiak azaldu beharko dizkiote. baimena eskatzen diotenean

-Batxilergoko ikasleek beren delegatuak aukeratzen dituzte.

Ikasleen delegatua. (Batxilergoan):

Bere gelako ikaskideek aukeratzen dute.

- Bere zeregina bi mailatakoa da:
 - bata, ikastolaren funtzionamenduari dagokiona,
 - bestea, ordezkatzen dituen ikasleei dagokiena.
- Hezkuntza-lanerako programazioari dagokionez, ondorengoak kontsultatzeko deitzen zaio:
 - jardueren programazioa
 - ikasle-irakasleen arteko harremanak
 - material pedagogikoaren erabilera zuzena eta kalteak jakinarazteko modua, ikasleen elkarbizitarako arauak (kasu horretan, kontsulta elkarren artean ebazten da)
 - diziplina-exijentziak
 - ebaluazio- eta errekupeazio-irizpideak
- hauek betetzeari dagokionez:
 - harremanak ditu irakasleekin, ordena eta diziplina mantentzeko
 - programatutako jarduerak egiten laguntzen du
- ondorengo gaiei buruz galdetzen zaio:
 - lortzen ari diren emaitza akademiko eta hezitzailean moldera,
 - ikasleen artean dagoen diziplina- eta lan-giroaz (kasu horretan, kontsulta elkarrekin ebazten da)
 - arlo pedagogikoaren funtzionamendua hobetzera bideratutako baliabideen, ekintza-lerroen eta helburuen berrikuspena.

Kontsulta eta erabakietan, berak ordezkatzen dituen kideengandik jasotako nahi akademikoak, diziplinazkoak, formaziozkoak, eta beste maila batzuetakoak jakinarazten eta defendatzen ditu, eta noski, proposamen horiek egiten dizkie:

- irakasleari
- tutoreari
- zikloko koordinatzaileari
- eta beharrezkoa balitz, ikasketaburuari eta zuzendariari.

Izaera erabat funtzionala duten delegatuaren jarduera guztiak ikasleekin zerikusia duten beste batzuekin osatzen dira, hala nola:

- Batzarretara deitzearekin
- informatzearekin
- taldean eta ikastolan adiskidetasun, ardura, lan eta alaitasun giroa

sor dezaten animatzearekin, hezkuntza-komunitate euskaldun batean garapen pertsonal hobe lortzeko.

Psikologoa:

Psikologoak hezitzaileei laguntzen egiten du lan, bereziki hezkuntzaren arloan, ikasketaburuaren aginte eta zuzendaritzapean.

Bi mailatan egiten du lan:

- bata orokorra da
- bestea, espezializatuagoa

Psikologoari, orientabide psikologiko eta pedagogikoaren zerbitzua eguneratuta

edukitzea dagokio, hor jasotzen eta lantzen baita ondorengo arloei dagokien informazioa:

- ikasle bakoitzaren bilakaera. Horretarako hauen jarraipena egiten du: gaitasun mentalak, afektiboak, erabakitzeak eta aktiboak, baita bere portaera eta jarrera ere,

- test eta froga psikologikoen emaitzak, ikaslearen izaera eta jarrerari buruzko informazio osagarria ematen baitute,

- ikasleek osatzen dituzten taldeen ezaugarriak,

- ikasleek bizi duten familia- eta gizarte-giroa.

Psikologoak, material hori ondorengo kasuetan erabiliko du:

- ikasleak orientatzeko

- harremanak dituenean

- irakasleekin
- tutoreekin
- koordinatzaileekin
- ikasleen gurasoekin

ikasleak ezagut ditzaten eta horien ezaugarrietara egoki daitezten;

- hezitzaileak hauetan orientatzeko:

- programazioetako ekintza-lerroak eta helburuen formulazioan,
- programen zuzentze eta gauzatzean
- ebaluazioaren interpretazioan.

Psikologoak, pertsonalki, arreta berezia eskaintzen die:

- ikasleei, baldin eta arazo hauek badituzte:

- mugitzeko anomaliak, zentzumen- eta neurologia-anomaliak
- adimen-urritasuna
- afektibitate- eta emozio-nahasmenduak
- portaera desbideratuak

- ikasketetan eta formazioan porrot egiten duten ikasleei, hau da, izaera

normal garatzea lortzen ez dutenei,

- asalduen kausak bilatuz

- tratamendua programatuz

- konponbide egokiak jarritz, bai pertsonalki, bai beste hezitzaileekin elkarlanean.

Prebentzio-lana Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egingo du batik bat, nahiz beste zikloez ere arduratuko den.

Gurasoak:

Nahita eta ardura osoz beren seme-alabak Ikastolara bidaltzen dituzten pertsonak dira.

Gurasoen partaidetza hiru mailatakoa da:

- eskolakoa
- eskolaz kanpokoa
- gestio-arlokoa

Eskolako arloan, gurasoek iritzia eman dezakete eta galderak egin ditzakete diziplinaz, ikasleengandik lortzea espero diren helburuez, ebaluazio-irizpideez, ikasleen bilakaera psikoebolutiboaren ezaugarriez eta oro har seme-alaben eskola-hezkuntzan interesgarritzat jo dezaketen edozein kudeaketaz.

Seme-alaben talde edo gelaz informazio pertsonala edo kolektiboa ere jasotzen dute arlo akademikoaz, heltze-, afektibitate-, harreman- eta orientabide-arloaz, eta beste hainbatez.

Sarri dituzte harremanak seme-alaben tutorearekin, eta horiei dagokien edozeri buruz aritzeko tutorearengana jo beharko dute. Batzuetan, eta batez ere goi-mailatan, dagokion ikasgaiaren irakasleekin hitz egin ahal izango dute.

Gurasoei, eskolako edozein zalantza, ekimen, kexu, eta abar argitzeko edo mahaigaineratzeko araututako bidea erabiltzea eskatzen zaie. Arestian esan dugunez, lehenik tutorearengana jo behar dute, eta arazoak hartaratuta beste pertsona batzuekin hitz egin behar badute, zikloko koordinatzailearengana, ikasketaburuarengana edo zuzendariarengana joko dute.

Eskolaz kanpoko arloan, eskolaz kanpoko ekintzetan edo ekintza osagarrietan parte hartzen dute, bereziki kirol- eta kultura-ekintzetan.

Kultura-ekintza batzuek, danborradak esate baterako, badute araudi berezia eta ikastolarekin koordinatuta funtzionatzen dute, baina autonomoak dira.

Ikastolaren kudeaketari dagokionez, gurasoek batzarretan, Artezkaritza Kontseiluan eta elkarlan zehatz batzuetan parte hartzen dute.

Kirol-koordinatzailea:

Ikastolaz kanpo egiten den kirolaz arduratzen den pertsona da. Zeregin hauek ditu:

- dinamizatzailea: ikasleak kirola egin dezaten animatzea, hainbat kiroltaldeak osatzea, eta abar.

- antolatzailea: eraturako taldeak antolatzea, behar izanez gero entrenatzaileak eta arbitroak bilatzea, jokalarien fitxa eta gai administratiboak kudeatzea, eta abar.

- koordinatzailea: koordinatzea talde guztiak, partiduen egun eta orduak, taldeei lagundu beharreko pertsonak, kamisetak, beste material batzuk, eta abar.

- eskolaz kanpoko kirolerako materialaren arduraduna: zuzendariari urtero aurkeztea bere zeregina betetzeko behar duen materialaren zerrenda; material hori zaintzea eta ikasleek ongi erabil dezaten arduratzea.

- kanpo harremanak: kirol-gaiez kanpotik datorren informazio guztia berari helaraziko zaio, egokitzat jotzen badu aurrera eraman dezan.

Lan horiez gain, kirol-arloarekin harremana duten beste batzuen ardura eramatea eska liezaioke ikastolak.

Horretarako, ordaindu egingo zaionez gero, aurrekontu bat izango du. Ikasturte hasieran eta aurrekontua egin baino lehen sarrera gastu-kalkulu bat eta ikasturte amaiera arte egindako jarduera guztien memoria idatzi bat aurkeztuko ditu.

Irailetik ekainera (biak barne) egingo du bere lana eta astean gutxi gorabehera 10 ordu egin beharko ditu (egunero ordubete eta larunbatean beste bost).

B. Organo operatibo ekonomiko eta administratiboak eta funtzionalak

Garbitzailea (kontratutako zerbitzua):

Ikastolako egoitza guztiak hautsik eta zikinkeriarik gabe edukitzeaz arduratzen da.

Ondorengo egitea dagokio:

- egunero
 - paperontziak hustea eta zaborrak ateratzea
 - zoruak erratzaz garbitzea eta orbanak daudenean urez garbitzea
 - komunak ongi garbitzea

- kristal eta ateetako hatz-arrastoak ezabatzea
- altzarietako hautsa biltzea
- astero
 - zurezkoak ez diren zoruak xaboi neutroarekin garbitzea
 - leiho ertzak garbitzea
- hilero
 - kristalak, itxiturak, ateak, markoak eta abar garbitzea
- urtero
 - sabaien, hormen, lanparen, eta abarren garbiketa orokorra, finkatzen

zaion programaren arabera.

Lan horiez gain, noizean behin agin lekizkiokeen antzeko beste lan batzuk ere egingo ditu.

Jantokiaren arduraduna (kontratutako zerbitzua eta bertakoa):

Ematen den janaria banatzeko eta kontsumitzeko behar den materiala prestatzeaz arduratzen da. Ondoren, janaria zerbitzatzeaz arduratuko da, txikienei banaka eta helduagoei self modura. Haurrek behar bezala jan dezaten ere arduratuko da eta zerbait oker badabil dagokion irakasleari jakinarazteaz. Egunero garbituko ditu jaten emateko eta jateko erabili diren tresnak eta jangela. Hiru hilean behin garbiketa orokorra egingo du.

Bere zereginen barruan dago, klaseak hasi arte ikasleez arduratzea, finkatzen zaion programaren arabera.

Lan horiez gain, noizean behin agin lekizkiokeen antzeko beste lan batzuk ere egingo ditu.

Etkezaina:

Lan hauek egiten ditu:

- esaten zaion orduetan, sarbideko ateak zabaltzen eta ixten ditu. Ixtean, barruko ateak, leihoak, argiak, eta gainerakoak behar den bezala daudela egiaztatzen du.
- erabakitzen diren egunetan, berogailua pizten, erregulatzen eta itzaltzen du, eta galdarak dauden lekua garbi edukitzen du.
- eraikinaren erabilera zuzenaz arduratzen da
- autoak behar bezala aparkatu daitezen arduratzen da
- ikastolara etortzen diren pertsonai arreta ematen die
- batzuetan, eskabide-hartzeaz arduratzen da
- eraikin barruan altzariak, tresnak, dokumentuak, eta abar lekuz aldatzen ditu
 - biltegiaritutako materialak ordenaturik edukitzen ditu
 - dei eta komunikazioak pasatzen ditu, eskatzen zaizkion barruko eta kanpoko enkarguak egiten ditu
 - istripuak izaten dituzten ikasleak osasun-zentroetara eramateaz arduratzen da, baita agintzen zaizkion antzeko beste lan batzuek ere.

Kontabilitate-administraria:

Ondorengo sailei dagozkien lanak egiten ditu:

- idazkaritza orokorra
- langileak
- erosketa eta biltegiak

- kontabilitatea, lankidetzaren funtzional eta pertsonalarekin.

Idazkaritzako zereginak hauek dira:

- txosten ofizialak erregistratzea
- telefono deiak erantzutea
- lanak makinaz idaztea, fotokopiak egitea, erreprografiako lanak egitea
- ondorengo lanak bideratzea:
 - matrikulak
 - ikasleen zerrendak
 - espedienteak
 - ziurtagiriak
 - bekak
- artxibatzea
 - ikasle eta ikasle ohien zerrendak
 - ikastolako dokumentazio orokorra eta publikoaren kontsulta arruntei ere erantzutea.

Langileei dagokienez, ondorengoak egiten du:

- langileen altak eta bajak eguneratuta edukitzea
- langileen nominak ordaintzea
- gizarte-aseguruak eguneratuta edukitzea
- PFEZaren ordainketa-gutunak egitea
- antzintasuna, familia-plusa, eta abar kontrolatzea

Hauek dira erosketak eta biltegiei dagozkien lanak:

- erosketak bideratzea. Horrek esan nahi du, hornitzaileen fitxategia kontsultatzea, eskabideak egitea, albaranak jasotzea, horiek kontratatzea, fakturak egiaztatzea, ordainketak egitea eta hornitzaileen kontuen egoera kontrolatzea.
- biltegietan jasota dagoena kontrolatzea, sarrera- eta irteera-fitxak eguneratuta edukita, eta inbentario fisikoak eta horien ebaluazioa eginda.

Kontabilitateko lanak hauek dira:

- kontabilitate-liburuaren edukitzailatza
- kontabilitate-liburu lagungarrien edukitzailatza: fakturen, banku-kontuaren, ikasleen kuoten, eta abarren erregistroa. Halaber, kontabilitateko idazpenerako datuak prestatzea.
- hornitzaileei ordaintzeko taloiak egitea
- erreziiboak kobratzea eta behar bezala dokumentatutako ordainketak egitea
- itzultzen diren erreziiboak bideratzea
 - zordunen zerrenda eguneratuta edukiz,
 - ordainketa erreklamatzeko duten gutunak modu egokian bidaliz, eta antzeko beste lan batzuk

Administratzailea:

Ikus 27. orrialdea.

VI. AZKEN OHARRAK

Lan hau amaitzeko, Zentroaren Hezkuntza Proiektuarekin (ZHP) zerikusia duten bi ñabardura aipatu nahi genituzke.

Lehenik, garbi eduki beharko genuke ZHPtik eta horrekin bat etorrira ondorengo txostenak eratortzen direla: Zentroaren Urteko Plana, curriculumen diseinuak, Barne Erregimenerako Araudia, Artezkaritza Kontseiluaren eta Batzarren akordioak, Elkarbizitzarako arauak eta indarrean dagoen ikasturterako aurrekontu ekonomikoak, Txosten horien bidez gauzatzen da ZHPa, beraz ZHPtik eratortzen dira, baina ez dira berez ZHP.

Bigarren, ZHP aldizka, (bost urtean behin, adibidez) berrikustea komeniko litzatekeela adierazi nahi genuke; ebaluatzeko, egoera berriak hala eskatuko balu egokitzeko, eta abar. Berrikuspen horiek Artezkaritza Kontseiluak egin beharko lituzke, eta jarraian Batzarrari eta irakasleen klaustroari eta beharrezkoa balitz ikasleei proposatzeko.

Aldaketarik egingo balitz, horretarako arrazoiak eta ZHPan sartzeko funtsak azaldu beharko lirateke, eta aldaketaren zergatiak eta lortu nahi diren helburuak azaldu.